



LORATEGI BOTANIKOA


Iturrarango Lorategi Botanikoa Iturraran Parketxearen inguruan aurkitzen da. Momentu honetan 25 hektarea ditu, horietatik 10 hektarea bertako zuhaitzenak, eta 6.000 taxon inguru mundu guztiko landarediaren erakusleho. Gehienak kanpoko zuhaitz eta zuhaixkak dira. Lorategiaren eremu batean Biodibertsitatearen lorategia deituriko eremua ere badago, arriskuan dauden Euskal Herriko landareen bildumarekin.



Lehen landaketak 1986ko neguan egin ziren eta urtero espezie berriak gehitu izan zaizkio bildumari. Bertako mikroklimari esker, mundu guztiko landareak alda daitezke, leku hotzetakoak zein epeletakoak.



Lorategia 8 gune handitan banatua dago eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Errazago bisitatu ahal izateko, 3,5 kilometroko luzera duen bide sare bat osatu da. Taxon guztiek beren etiketak egoki ipinita dituzte eta datu hauek ematen dituzte: zein familiatakoak diren, zein izen botaniko duten eta jatorria.



Doako sarrera.

Bisitak taldeentzat aurrez eskatuta





LANDARE BEREZIEN AZOKA

Pagoetako Parke Naturalaren helburu nagusienetako bat, inguruan ematen diren ohiko bizimoduen kontserbazio eta sustapenerako laguntza bat izatea da. Bide horretan, gure kultura eta ekonomiaren gakoetako bat den baserriaren etorkizuna, kalitatezko produktuak ekoiztu eta eskaintzean oinarritzen da.

Helburu hori bete asmoz, 2003. urtean, Iturrarango Lorategi Botanikoan urtean behin ospatzen den Landare Berezien Azoka sortu zen. Azoka honek landare eta lore aukera zabal bat eskaintzea du helburu, gure baratzetan, leihoetan eta lorategietan ezagutzen ez direnak, ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duen eskulangintzako jarduerak erabiliz bakarrik lortzen direnak.

Urtez urte azokara gerturatzen den jende kopurua gehitzen doa eta baita Euskal Herritik kanpoko bisitariena ere.



Apirilaren azkenengo asteburuan
Sarrera 5 €